

B E U S K A R A R E N B E R R I P A P E R A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskararen familia bidezko jarraipena hobetuz doa

Euskararen familia bidezko jarraipena, hau da, gurasoengandik seme-alabengana ematen den hizkuntzaren transmisioa izan da, eta da, askoren ardurarik handienetakoa.

HPINen eskariz Siadecok EAEko 91ko zentsuaren azterketaren arabera, euskararen familia bidezko jarraipena geroz eta hobeto doala ikus liteke. Hauek dira beheko laukitik atera ditzakegun zenbait ondorio:

- Bai guraso biak euskaldunak direnean eta baita biak erdaldunak direnean ere, muturreko kasu bietan, euskaraz dakiten seme-alaben kopurua handiagoa da adin talderik gazteenetan, zaharragoetan baino. Beste horrenbeste gertatzen da gurasoetariko bat, aita edo ama, erdaldunak direnean.

- Euskararen familia bidezko jarraipena gurasoen hizkuntza tipologiaren arabera da. Bi gurasoak euskaldunak direnean euskara hobeto transmititzen da amak bakarrik euskaraz dakienean baino.

- Amak bakarrik euskaraz dakienean hobeto transmititzen da euskara aita bakarrik dakienean baino.

- Argi dago, bestalde, guraso biak erdaldunak direnean irakas-sistemaren bidez transmititzen dela euskara. Multzoz honetan sartzen direnak euskaldunberriak dira. Hauxe da, hain zuzen, azterketa honen beste datu itzaropentsua: guraso erdaldunak dituzten 12 eta 15 urte artekoen ia %20 euskaldunak dira.

Katea ez da eten.



Donostian, irailaren 21eko ekitaldian.

Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra

Bere sorreraren 75. urteurrenari amaiera emateko, Euskaltzaindiak bere XIII. Biltzarra egingo du Euskal Herriko Unibertsitatean.

Urriaren 3tik 7ra bitartean, urtean zehar egindako jardunaldiek beren jomuga izango dute Leioan. Aztertuko diren gaiak ezin interesgarriagoak dira euskaldunontzat: euskara batua, Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak, gramatikari buruzko proposamenak, hitanoa, hiztegigintza, exonomastika, batuaren ahoskera...

Hizlariak ere maila handikoak izango dira: Aita Luis Villasante, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Mikel Zalbide, Patxi Goenaga, Patxi Altuna, Beñat Oihartzabal, Miren Azkarate, Endrike Knörr, Xabier Mendiguren, Xabier Kintana, Jose Ignacio Hualde, eta beste hainbat.

Komunikaziorako giro aproposa sortzen saiatu dira antolatzaileak. XIII. Biltzar honetan -Arantzazu (1968), Bergara (1978) eta Arrasatekoaren (1979) ostean garrantzitsuena- irakurriko diren txostenak ontzat emango ditu Euskaltzaindiak.

Euskararen familia bidezko jarraipena EAEko gazteen artean

		12-15 urte	15-21 urte	22-29 urte
Ama	Aita	%	%	%
Euskalduna	Euskalduna	97.47	95.00	91.03
Euskalduna	Erdalduna	79.53	65.72	48.61
Erdalduna	Euskalduna	71,45	53,82	37,24
Erdalduna	Erdalduna	18.82	11.71	8.58

Iturria: EAEko 1991ko Biztanleen Zentsua

Aita Santi Onaindia, Larreako idazle karmeldarra

Amorototik (Bizkaian) zortzi urte zituela irten zen Santi Onaindia, 85, Larreako eskolara. Hamahiru urte beranduago itzuli zen, lehen meza ematera.

Eusko Gudalosteko *Kirikiño* batailoiko kaperaua izan zen Gerra Zibilean zehar. Hori zela eta, auzitegi militarrek hogeita hamar urteko gartzela-zigorra ezarri zion. Horietatik hiru hainbat espetxetan igaro zituen eta beste hainbat desterruan.

Larreara itzuli eta euskal kulturaren aldeko lan nekagaitzari ekin zion. Aldizkariak (*Olerki*, *Karmel* eta *Aurrera* aldizkarietako sortzaile eta zuzendari izan zen), bildumak (*Mila euskal olerki eder*, *Jolasketak*, *Enbeitak Olerkaria*, *Gure Bertsolariak*, *Euskal Literatura...*), itzulpenak (Horazio, Tagore, Santa



Aita Santi Onaindia

Teresa, Dante, Virgilio, Goethe eta beste hainbaten lanak euskaratuz), elizako liburuak (*Kenpis*, *Eguneroko Meza...*) eta sorkuntza

lanak argitaratu zituen. Denetara berrogeita hamar liburutik gora plazaratu ditu. Bere garaian aitak emandako diruarekin eta handik eta hemendik jasotako sosekin argitaratu izan ditu denak. Zornotza eta Durangalderako euskal irati bat ere antolatu zuen, frogak egin ere bai, baina gogainak baimenik

eman ez.

1988an *Otoi Txinpartak* liburu autobiografikoa idatzi zuen. Lasai bizi da bere betiko Larreako komentuan. "Akaso *Aita Onaindiaren azken hausnarketak* liburua idatziko dut", dio bere betiko irribarrearekin.

Nekazaritza hiztegia

Nekazaritza alorrerako egiten ari den oinarrizko hiztegia urte amaierarako bukatuta egongo da.

Hiztegiak nekazaritzako bi alorretako hitzak jasoko ditu: lurlantzea eta abeltzaintza. Hiztegia lantzen ari den batzordeak bukatu du dagoeneko abeltzaintzako terminoen azterketa eta berehala burutuko du lurlantzeari buruzkoa.

Bestalde, batzordearen lana osatzeko, hiztegian agertuko diren terminoek erabiltzaileen artean duten onarpen-maila ezagutzeko testea egitea erabaki da. Testea inkesta bidez Euskal Herri osora zabalduta eta erantzuleak nekazaritza munduan diharduten sektore desberdinetako ordezkariak izan dira.

Euskarazko terminoekin batera, gaztelaniazko eta frantsesezko ordainak agertuko dira.

Gipuzkoako suhiltzaileak euskaraz.

Gipuzkoako suhiltzaileak beren lanerako beharrezkoa duten euskarazko eta gaztelaniazko hiztegia prestatzen ari dira. Eskuliburua marrazki eta irudiekin osatuko da. Oinarrizko dokumentua bihurtuko da, lanbide honetan ez baitago horrelako ezer eginda. Abiapuntu interesgarria.

Udalerrien izen

ofizialak. 1992tik hona EAEko zenbait udalerrik izena aldatzeko eman beharreko urrats guztiak eman baditu ere, izenok ez dira oraindik boletinean argitaratu. Hauek dira izen ofizial berriak: Araban: Salvatierra edo Agurain. Bizkaian: Etxebarri, Anteiglesia de San Esteban/Doneztebeko Elizatea; Arratzu (udalerrri berria); Artea (lehengo Castillo de Elejabeitia); Zeanuri eta Gatika.

Janari-Edari Hiztegia.

Eroskik laster argitaratuko du UZEIk prestatu duen *Janari-Edari Hiztegia*. 2.325 sarrera jasoko ditu euskaraz eta 2.355 espainieraz. Alor horietako terminorik erabilienak eta dendetan saltzen diren produktu gehienak bilduko ditu. Lehen atalak terminoen zerrenda eskainiko du, euskaraz eta espainieraz. Bigarrenak, sarrerak sail berezietan sailkatuta.

Radio San Sebastian

ere euskaraz. Uztailaz gero, Donostiako *Radio San Sebastián*-ek -Gipuzkoan gehien entzuten den irratiak- ordu erdiko irratsaio bat, Kultur Badia, ematen du euskaraz. Egunero gaueko bederatzit'erdietatik hamarrak bitartean, Alex Aisa eta Jon López kazetariak hiriko kultura gorabeherak jorratzen dituzte, Donostiako *Bagera* elkartearen koordinaziopean.

EAEko udal euskaltegiak abian jarri dute ikasturte berria

EAEko euskaltegi publikoek aderez ekin diote ikasturte berriari. Pentsatu gabe lelopean aurkeztu dute kanpaina berria, zalantzan daudenei euskara ikastera edo dakitena lantzerantz animatuko dituen azken bultzadaxoa emateko asmoz. Udal euskaltegiak kokatuta dauden herri desberdinetako alkateek ere euren konpromezua erakutsi dute udal euskaltegien erronkarekin. Mezua argia zen: euskara alderdi eta pentsamolde guztien gainetik dago.

Udal euskaltegiak 16 urtetik gorakoek euskara ikasi edo lan dezaten sortu zituzten udalek, HABErekin elkarlanean. Euskaltegi bakoitzak ikasleentzako hiru ikasgela dauzka gutxienez, irakasleentzako bat eta ikasleentzako gela. Udal askok dirulaguntzak ematen dizkiete udal euskaltegietara ikastera doazenei. Iaz 15.000 ikaslek baino gehiagok ikasi zuten euskara udal euskaltegietan. Aurten iazko kopurua gaitzera espero dute.

Jon Sodupe, 47, irakasle azkoitiarrak aurtengo Euskadi Saria, bi milioi pta.koa, irabazi du bere Ilustrazioaren bidetik argi berri bila Frankfurten saiakeragatik. Parisko Institutu Katolikoan lizentziatu zen Filosofian. Zumaiako ikastolako irakaslea dugu.

Amaia Iturbide, 32, idazle bilbotarrak aurtengo poesiako Euskadi Saria, milioi bat pta.koa, eskuratu du, Gelak eta zelaiak lanarekin. Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Bi olerki liburu plazaratu ditu. Itzulbidea izenekoagatik iazko Kritika Saria irabazi zuen.

Antonio Alegría, 65, eta **Felix Alegría, 55**, Alegría Hermanos autobus konpainiako jabeek beren konpainiaren berri ematen duen katalogo elebiduna argitaratu dute. Arabako Pipaon herrian jaioak, EAEko bazterretan txangoak antolatzen dituzte konpainiak dituen 55 autobusetan.

EAEko 50 euskaltegi publikoak lurraldeka

	Udal Euskaltegiak	Euskaltegi txikiak	Eskoladun herriak	Ikasleak 93-94
Araba	1	4	5	842
Bizkaia	21	4	31	8.073
Gipuzkoa	17	3	25	6.310
EAE	39	11	61	15.225

Iturria: HABE

Argitalpenak

Urruzuno Literatur Lehiaketa 1994

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak argitaratua, aurtengo Urruzuno Literatur Lehiaketa arrakastatsuak -562 esku-hartzaile izan ditu- prosan zein poesian izan dituen irabazleen lanak biltzen ditu. Liburua eskola denetara eta esku-hartzaile guztien etxera bidaliko da.



EUSKARAREN BERRIPAPERARA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
Helbidea:.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka

Lagunartearen zeregina

G. Euskararen familia bidezko jarraipenean familiak duen garrantziaz gain, zer beste azpimarratuko zenuke?

E. Lagunartearen zeregina hizkuntza normalkuntzan. Euskararen Aholku Batzordeak esan duen bezala, haurren inguru hurbil horiek izan dira betidanik euskaldun berriak sortzeko eraginkorrenak. Lehenxeago esandakoaz gain, ohiko erabilera eremu arruntak segurtatzeak izan behar du lehenetasun osoa, hizkuntzaren egunerokotasuna eta ohiko segida baita euskararen bizi-iraupenerako bermerik seguruena. Ikuspegi honetatik, aisialdiak, kirol eskaintzak eta, orohar, irakaskuntza ez-arautuak trataera berezia izan behar dute hizkuntza plangintzaren barruan.

Horretarako, jakina, lehenetasunezko guneek, ez ordea bakarrak, gune soziolinguistikorik euskaldunenak izan beharko lukete.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Udal Euskaldunen Mankomunitatea

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hogeitau herri euskaldunek sortu zuten 1988an.

UEMAren helburu nagusia gaztelerak, udalerri euskaldun hauetan betetzen dituen funtzio guztiak euskararentzat bereganatzea da; kontuan harturik, hori bai, euskarak herritar guztien elementu integratzailea izan behar duela eta xede hauek betetzeko epe batzuk ezarri direla, herritar guztientzat prozesua leuna izan dadin.

UEMAk zuzendari bat du, Antxon Iztueta, eta Zuzendaritza batzordea. Honen ardurak mankomunitatearen egitasmoak betearaztea, aldizkari bat argitaratzea eta kanpo harremanak bideratzea dira, besteak beste.

Mankomunitatearen dirubidea udalerriek ordaintzen dituzten kuotak dira. UEMAk bere esparrua zabaltzeko itxaropenak ditu, izan ere, Hegoaldean bakarrik, ehundik gora dira euskaldunen kopurua %80tik gorakoa duten udalerriak. Bateragilea: Iñaki Arregi.

Tfnoa.: (943) 65 24 13

15.000 bizilagun

UEMA osatzen duten 20 herriak

- Bizkaian: Aulesti, Dima, Etxebarria, Gatika, Gizaburuaga, Munitibar-Gerrikaitz, Nabarniz eta Zeanuri.
- Gipuzkoan: Altzo, Aizarnazabal, Baliarrain, Errezil, Gaintza, Leaburu-Gaztelu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Orexa.
- Nafarroan: Goizueta eta Leitza.

Iturria: UEMA

✓ Kontutan hartzeko

• **Euskal Ikastaro berezia Salamancan.** Salamancako Unibertsitateak ikastaro berezia eratu du euskal kulturari buruz Filologiako lehen eta bigarren zikloko ikasleentzat. Sei hizlarik hitz egingo dute. Berri gehiagorako: Andoni Barreña, (923) 29 44 00.

• **Hezkuntza hirueleduna** aztertuko duten II. Nazioarteko

Jardunaldiak egingo dira Gasteizen azaroaren 3an eta 4an, Gaztelueta Fundazioak antolatutako. Tfnoak.: (94) 463 30 00 - 464 90 45.c

• **Ekin Euskarari.** HPINek antolatzen duen erakusketa hau Durangon (urriaren 7tik 16ra) eta Getxon (urriaren 21etik 30era bitartean) izango da ikusgai.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA